



## **ALDEZ AURREKO KONTSULTA, SOZIJETATEEN GAINEN KONGAREN ERREGELAMENDUA ALDATZEKO PROIEKTUAZ.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, bere I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezkari konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, loturiko eragiketetan balioespen proposamenak egitearekin zerikusia duen informazioa eman behar diren arau esparrua ezarri nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina izan dezaketen herritarren eta ordezkarietasuna duten erakundeen iritzia jasotzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, irailaren 15era arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Loturiko pertsona edo erakundeen arteko eragiketak alde aurretik balioesteko akordioei buruzko araudia
--------------------	--



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Informazio osagarria eduki nahi da loturiko pertsona edo erakundeen arteko eta, elkarri laguntzeko baliabide bat dela bide, beste estatu edo nazioarteko edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuekin trukatu beharreko eragiketak aldeztatik aurretik balioesteko proposamenen kasuan.
<b>HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA</b>	Beharrezkoa da eskatutako informazioa izatea
<b>XEDEAK</b>	Informazio osagarria izan beharra ezartzea, loturiko pertsona edo erakundeen arteko eta, elkarri laguntzeko baliabide bat dela bide, beste estatu edo nazioarteko edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuekin trukatu beharreko eragiketak aldeztatik aurretik balioesteko proposamenen kasuan.
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUZAILEAK ETA ARAUZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Irizten zaio hau dela aukerarik egokiena.